

IRAILA - septiembre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	EL SOL DEL MEMBRILLO
LARUNBATA 3	22:00	GOOD BYE LENIN
IGANDEA 4	16:30	HIRUKIAK 3 - ERPURUTXO - MAHAI BIRIBILEKO ZALDUNAK
OSTEGUNA 8	22:00	EL OLOR DE LA PAPAYEVERDE
LARUNBATA 10	22:00	NIKITA
IGANDEA 11	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON
OSTEGUNA 15	22:00	IN THIS WORLD
LARUNBATA 17	22:00	LA COSTILLA DE ADAN
IGANDEA 18	16:30	POCAHONTAS: II JONH SMITHEN ITZULERA
OSTEGUNA 22	22:00	LANTANA
LARUNBATA 24	22:00	TODO O NADA
IGANDEA 25	16:30	TOTALLY SPIES
OSTEGUNA 29	22:00	EL DOCTOR MABUSE (EL INFIERNO)

URRIA - octubre

LARUNBATA 1	22:00	UNA HISTORIA VERDADERA
IGANDEA 2	16:30	MARTINA ETA XAGUTXOAK

ARGAZKI ERAKUSKETA

KULTURA ARETOAN, Donibane kalea,2

16an eta 23an egun osoz: 09:00 -14:00 eta 17:00 - 19:00
17an eta 24ean arratsalde: 17:00 -19:00



K
U
H
L
O
T
T
U
S
R
A
K

Oroitzene AEK Euskaltegia 1990-2005

Oroitzene AEK euskaltegiaren 15.urteurrena ospatzeko, bertan eman diren saio eta bota diren izerdiak oroitzeko hamabost urte hauetako argazki erakusketa bat prestatu du euskaltegiak. Orain ikusi ahal izango dira euskaltegiaren historiaren zati garrantzitsuak. Gertaerak zaharrak, aurpegi ezagunak... galdutako oroimen ugari berreskuratzeko aukera aparta; berdin herri honen euskalgintzaren historiaren zati garrantzitsua birgogoratzeko edota lehen aldizkoz ezagutzeko. Ez galdu aukera!




Lezoko Unibertsitateko
Udala

Lezoko zine agenda

IRAILA SEPTIEMBRE


2005



800 zinema




Lezoko Unibertsitateko
Udala



EL SOL DEL MEMBRILLO

Antonio López margolari ezaguna da arte munduan. Hiperrealismoa lantzen duen margolaria izaki, film-dokumental honetan irasagarrondo baten bilakaera bere horretan margotzea obsesio bilakatuko da. Zuhaitzaren bilakaeran ondorioz, bezperan egindako margo lanari zuzenketak egin behar-ko dizkio. Noiz eta nola amaituko du koadroa? Finean,erizeren lan bikain honek, prozesu artistiko bat nola garatzen den erakusten digu.


1992, Espainia 133 min. Victor Erice
Antonio López, Marina Moreno, Enrique Gran.



EL OLOR DE LA PAPAYA VERDE

Vietnamen kokatua eta bertako zuzendari batek egina, pelikula honetan herrialde horretako eguneroko bizitzan kokatuko istorio baten berri jasotzen du. Neskato gazte bat zerbitzari moduan dator arazoz beteriko familia batetara. Bertan haur horren hazkuntzan eta harremanetan oinarrituta, vietnamgo gizartearen berri izango dugu. Film bitxia benetan. Oso pelikula saritua bai Canneseko zinemaldian, bai Cesar sarietan ere.

1993, Vietnam, Frantzia 104 min. Anh Hung Tran
Tran Nu Yên-Khê, Man San Lu, Thi Loc Truong, Anh Hoa Nguyen.



IN THIS WORLD

Afganistango bi lehengusu dira Enayat eta Jamal. Errefuxiatu eremu batean bizi dira Paquistanen, batzuen esanetan munduko handiena dena. Bi gazte hauen familiak argi dute, etorkizunean bizitza hobeagoa nahi badute behintzat, bi gazteak Ingalaterrara bidali behar dituztela. Aintzinako zeta-aren bideari jarraituz haruntz abiatuko dira bidai arriskutsu batean, mafiak eta pertsonen trafikatzailaekin borrokatu beharko dutelarik.


2002, EB 88 min. M.Winterbottom
Jamal Udin Torabi, Enayatullah, Imran Paracha, Hidayatullah.



LANTANA

Amodioa, giza harremanen eta akatsen inguruan eraikitako thriller psikologikoa. Australiako zinemaren berri izateko aukera berria eskaintzen digu pelikula poliziako honek. Prestigiodun psikiatra gau batean desagertu egiten da. Leon ikerlariaren esku geratzen da gertatutakoak argitzea. Pelikula korala izanik, elkarren artean lotuta dauden pertsonai eta istorioen egitura-keta paregabea du filmak. Oso pelikula saritua, 2001ean Australiako sari gehienak irabazi zituen.

2002, Australia 121 min. Lawrence Ray
Anthony LaPlagia, Rachel Blake, Kerry Armstrong, Melissa Martinez.



EL DOCTOR MABUSE (El infierno)

Espresionismo alemanak pelikula onak baino maisulanak eman zituen. Oso garai oparoa izan zen momentu hura zinemarentzako, ondoren bide hori landu zuten zuzendari gehienak Estatu Batuetan bukatu bazuten ere. Mabuse Doktorea aipatu maisulan horietako bat da. Mabuse doktorearen helburua ez da ondasun materialak pilatzea, gizakiekin eta euren boronda-tearekin jolastea baizik.

1922, Alemania 116 min. Fritz Lang.
Rudolf Klein-Rogge, Bernhard Goetzke, Alfred Abel, Gertrude Welcker.



GOOD BYE LENIN

Idea sozialisten defendatzaile sutsua da Alexen ama. Beti egon izan da Ekialdeko Alemaniaren estatuaren politikaren alde. 1989an koman sartzen da istripu baten ondorioz. 8 hilabete beranduago esnatzen denerako erre- alitate sozio-politikoak guztiz diferentea da. Kapitalismoak irabazi duela ezkatutako arazo ugari izango ditu semeak baina ez du bere ama aztorat- zea nahi errealtate berria zein den ezagutu eta gero!


2003, Alemania 121 min. Wolfgang Becker
Danie Brühl, Katrin Sab, Maria Simon.



NIKITA

Nikita, polizia bat hil ondoren harrapatzen dute. Ez diote epaiketarik egin- go, ez kartzelan sartu ere. Bere zigorra ordaintzeko beste modu bat eskai- niko diote: duen identitatea aldatu eta zerbitzu sekretuentzako lanean arit- zea. Onartu egingo du proposamena. Bi urteko formazioaren ondoren Nikita prest dago kalera ateratzeko aginduak betetzeko. Ekintza eta tiroak nahi!!! Ondoren telebistarako izen bera zuen serie arrakastatsua egin zen!!!!


1990, Frantzia 115 min. Luc Besson
Anne Parillaud, Marc Duret, Patrick Fontana, Alain Lathiere.



LA COSTILLA DE ADAN

Klasiko zoragarri honek Katharine Hepburn eta Spencer Tracyren arteko lehia gogor bat izango du oinarri. Emakume batek bere senarra hil ondoren K.Hepburnengana joko du epaiketan honek defenda dezan. Epaiketa horretako fiskala nor izango den asmatu duzue jada? Epaiketak bere bizit- za pertsonalean eraginik ez duela izango hitzartzen badute ere, ez da horrela izango. Komedia ahaztezin eta zoragarria!


1949, EEBB 101 min. George Cukor
Katharine Hepburn, Spencer Tracy, Judy Holliday, David Wayne, Tom Ewell.



TODO O NADA

Mike Leigh maisu da Ingalaterrako klase ertain eta behe klaseko egoerak islatzen. Phil taxi gidaria da, Penn supermerkatu bateko kuxan. Alaba, gar- bitzaile moduan dabil eta semea langabezian dago. Ez du bizitzarako ilusio gehiegirik familia honek, bat-batean semea gaixotzen den arte. Pelikula bidaia emozionala da, errealtate gordinean oinarritutako bidaia. Donostia- ko zinemaldian oso kritika onak jaso zituen

2002, EB, Frantzia 128 min. Mike Leigh
Timothy Spall, Lesley Manville, Alison Garland, James Corden.



UNA HISTORIA VERDADERA

Beltzen zinemagile bezala ezagutua, Spike Leek azal zuriko antzezleak izango ditu lehenengoz protagonista bere filme batean. Monty Broganek 24 ordu ditu datozen 7 urteak espetxean pasatzera joan aurretik. Manhattaneko "nagusia" zeneko garaiak igaro dira eta azken orduak familia eta lagu- nak agurtzeko erabiliko ditu, baina horien artean ote dago bera salatu zue- na? Eszena batzuk ahazteinak dira! Edward Norton Lezon ikusteko hirugarren aukera!!!

1999, EEBB, Frantzia, EB 112 min. David Lynch
Sissy Spacek, Jane Galloway Heitz, Harry Dean Stanton.



HIRUKIAK 3 - ERPURUTXO - MAHAI BIRIBILEKO ZALDUNAK

Hirukiak, jada klasiko diren, beste bi ipuinetan parte hartzen dute: *Erpurut- xo* (Erpurutxo, horren anaia-arrebak eta Hirukiak tranpa batean jausi dira, eta ogro gaizto baten gazteluan agertu dira) eta *Mahai biribileko zaldunak* (Sorgin Aspertuari esker, Hirukiek Arturo erregea eta Mahai biribileko zal- dunak ezagutu dituzte. Neskatoek jakin dute Mordecan erregearen lehen- gusua traidorea dela, eta den-dena esan diote Arturori).


2003, Catalunya 60 min. Hainbat
Marrazki bizidunak.



TRIKI, TRAKA, TRON

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharreneta- koak. Belaunaldi ezberdinak beren emaldi umoretsuekin denbora atsegi- nak pasatakoak dira. Gaurko proiektzioan, beren abesti eta istorio barrega- rriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango duzu Gezalara hurbilduz gero.

2002, EH 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Txirri, Mirri eta Txiribiton.



POCAHONTAS: II. JONH SMITHEN ITZULERA

1614ean John Smith Jamestownera itzultzen da Pocahontasen bila. Laster ohartuko da gizon zurien eta indiarren arteko bakea hautsita dagoela. Pocahontasek, bere tribuarekin, ihes egin behar izan zuen Virginia barrualdeko lurraldeetara. Smith kapitaina ausartak, abentura eta arriskuz beteriko bidaia luze baten ondoren, azkenean aurkituko du bere maitea, Pocahontas printzesa.

1998, EEBB 72 min. Ellery, Tom & Raymond, Bradley.
Marrazki bizidunak.



TOTALLY SPIES

La istorio kontatzen dira gaurko saiaona: *Musikariekin txoratuta* (espioiak Ricky Martinen kontzertura doaz jarraitzaileen portaera bitxia ikertzeko), *Erregina egun batez* (Afrikako herrialde batera doaz, Lybiara, Hango erregi- na den Tassara, bahitzen saiatu dira eta espioiak korapiloa askatu nahi dute), *Jerry berria* (Wooopera heldutakoan Mac Smithek Jerryren lekua har- tu du), *Ihesa* (Espioiak hainbeste lan eta gero, Hawaira doaz oporretara).

2001, Frantzia, EEBB 88 min. Hainbat
Marrazki bizidunak.



MARTINA ETA XAGUTXOAK

Martina landan lasai bizi den neskatxo txikia da. Egun batean berak eta bere bi lagun arratoiek hirira joatea erabakitzen dute eta han Sussi izeneko hiriko arratoi bat ezagutuko dute. Martina, bere lagunak eta Sussik hiriaren alde politik ezagutzen dituzte, baina historia guztietan bezala alde txarrak ere badira: kasu honetan estoldetako arratoi maltzurak. Zer gertatuko da?

1998, Danimarka 62 min. Jannik Hastrup.
Marrazki bizidunak.